

DBUS-EKO BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN PRIBATUTASUN POLITIKA

Pribatutasun Politika honek arautzen ditu (aurrerantzean, “**PRIBATUTASUN POLITIKA**”) DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUk legezko betebeharrak betez interesdunen esku jartzen duen barne kanalaren bidez (aurrerantzean, “**BARNE INFORMAZIO KANALA**”) eta kanal hori sartuta dagoen barne informazio sistemaren bidez (aurrerantzean, (“**BARNE INFORMAZIO SISTEMA**”) egiten duen datu pertsonalen jasotzea eta tratamendua.

1. Nor da zure datuen Tratamenduaren Arduraduna?

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAU da (aurrerantzean, “**DBUS**”) zure datuen tratamenduaren arduraduna. Donostian (Gipuzkoa), Fernando Sasiain kaleko 7an helbideratuta dagoen erakundea da, Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 1001. Liburukian, 126. folioan, SS-572 orrian eta 1. idazpenean, eta A-20003737 da bere IFZa.

Datuen babesaren alorrean aplikatu behar den araudian ezarritakoaren arabera, Datuen Babesaren Ordezkarri bat daukagu izendatuta (DBO). Ordezkarri hori DBUSeko pribatutasunaren kudeaketaz eta kontrolaz arduratzen da eta dpo@dbus.eus posta elektronikoko helbidearen bitartez jarriko ahal izango zara harremanetan berarekin.

2. Zer datu mota tratatzen ditugu?

BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN bidez, honako datu kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Informatzailearen identifikazio datuak, datu profesionalak eta harremanetarako datuak (adibidez, izena, abizenak, kargua edo erakundearekiko lotura, posta helbidea eta/edo posta elektronikoa, telefono zenbakia, etab.), betiere pertsona horrek datuak borondatez eman baditu eta modu anonimoan informatzea aukeratu ez badu.
- BARNE INFORMAZIO KANALEAN jasotako informazioan kontatutako gertakariak dagozkion pertsonaren identifikazio datuak eta datu profesionalak (adibidez, izena, abizenak, kargua edo erakundearekiko lotura, etab.).
- BARNE INFORMAZIO KANALEAN jasotako informazioaren ondorioz hasitako ikerketaren esparruan lagundu behar duten hirugarrenen identifikazio datuak, datu profesionalak eta harremanetarako datuak (adibidez, izena, abizenak, kargua edo erakundearekiko lotura, posta helbidea eta/edo posta elektronikoa, telefono zenbakia, etab.)
- BARNE INFORMAZIO KANALEAN jasotako informazioan kontatutako gertakariak.

Inola ere ez da bilduko informazio espezifiko bat tratatzeko egokia ez den datu pertsonalik, eta, istripuz biltzen badira, alferrikako luzamendurik gabe ezabatuko dira.

3. Zer xederekin eta zer legitimaziorekin tratatzen ditugu datuak?

BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN bidez datu pertsonalak tratatzearen helburua izango da BARNE INFORMAZIO KANALAREN bidez emandako informazioa jasotzea eta kudeatzea, eta, hala badagokio, informatutako gertakariak ikertzea, hori guztia, DBUSi dagozkion lege betebeharrak betez (2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa).

Datu pertsonalen kategoria bereziak tratatuz gero, behar-beharrezkoak direla bermatuko da, tratamendu hori zilegi dela ulertuta, funtsezko interes publiko bat dagoelako (2/2023 Legea,

otsailaren 20koa, arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa).

4. Nori jakinarazten dizkiogu datuak?

BARNE INFORMAZIO SISTEMAN dauden datuetarako sarbidea, bere eskumen eta funtzioen eremuaren barruan, honako hauek baino ez dute izango: (i) BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN arduraduna; (ii) DBUSeko Giza Baliabideen arduraduna, langile baten aurkako diziplina neurriak hartu behar direnean; (iii) DBUSeko Zerbitzu Juridikoen arduraduna, informatutako egintzei buruzko neurri legalak hartu behar direnean; eta (IV) DBUSeko Datuen Babesaren Ordezkarria (DBO).

Datu pertsonalak DBUSen neurri zuzentzaileak hartzeko edo, hala badagokio, zehapen edo zigor prozedurak izapidetzeko beharrezkoa denean baino ezingo zaizkie hirugarrenei jakinarazi (adibidez, Agintaritza judiziala, Fiskaltza edo Administrazio agintaritza).

Nolanahi ere, informatzailearen nortasuna (identifikatu denean) isilpean gordeko da eta, ondorioz, ez zaie inola ere jakinaraziko kontatutako gertakarietan aipatutako pertsonen; eta (ii) Agintaritza Judizialari, Fiskaltzari edo eskumena duen Administrazio Agintaritzari bakarrik jakinarazi ahal izango zaie, zigor, diziplina edo zehapen ikerketa baten esparruan.

Ez dago aurreikusita tratamenduaren xede diren datuak BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN bidez nazioartera transferitzea.

5. Zenbat denboran gordeko dira zure datuak?

Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak informatutako gertakariei buruzko ikerketa hastea bidezkoa den erabakitzeko behar den denboran baino ez dira gordeko BARNE INFORMAZIO KANALEAN.

Emandako informazioa edo informazioaren zati bat egiazkoa ez dela egiaztatzen bada, berehala ezabatuko da, salbu eta egitasun falta hori ez-zilegi penala izan badaiteke. Kasu horretan, dagokion prozedura judiziala izapidetzen den bitartean, behar den denborarako gordeko da.

Nolanahi ere, jakinarazpena jaso eta hiru hilabetera ikerketa jarduerarik hasi ez bada, ezabatu egingo da, non eta ez den beharrezkoa hura kontserbatzea BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN funtzionamenduaren ebidentzia uzteko. Bideratu ez diren jakinarazpenak soilik modu anonimizatuan egon daitezke jasota.

Egin diren jakinarazpenen dagokienez, dagokion ikerketa egiteko behar den denboran gordeko dira datu pertsonalak, eta ikerketa amaitu eta 30 egunera ezabatuko dira, salbu eta DBUSek bete beharreko lege betebeharrak gehigarriak betetzeko gorde behar direnean.

6. Zer eskubide dituzte interesdunek?

Datuen babesaren alorrean aplikatu beharreko araudiak norberaren datu pertsonalei lotutako hainbat eskubide ematen dizkie interesdunei, eta datu horien tratamenduan zehar erabili ahal izango dituzte eskubide horiek. Hauek dira aipatutako eskubideak:

- Beren datuak eskuratzea: beren datuak eskuratzeko eskubidea, jakiteko beraiei buruz zer datu pertsonal tratatzen ari garen.
- Beren datuak zuzentzeko edo ezabatzeko eskatzea: egoera jakin batzuetan, beraiei buruz tratatzen ari garen eta oker dauden datuak zuzendu ahal izango dituzte edo, baita ere, beren

datuak kentzeko eskatu, besteak beste datuak beharrezkoak ez badira bilketaren helburuetarako.

- Beren datuen tratamendua mugatzeko eskatzea: egoera jakin batzuetan, beren datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango digute, eta kasu horretan jakinarazten diegu soilik erreklamazioak egiteko edo erreklamazioen defentsarako gordeko ditugula, datuen babesaren alorrean aplikatu beharreko araudiak aurreikusten duenari kasu eginda.
- Beren datuen tratamendua ukatzea: beren datuen tratamenduari ezetz esateko eskubidea izango dute, eta kasu horretan tratatzeari utziko genioke, ez bada legezko arrazoiengatik edo balizko erreklamazioak egiteko edo defendatzeko gorde egin behar direla.

Tratamenduaren aurka ukatzeko eskubidea baliatzen dena jakinarazitako gertakarietan aipatzen den pertsona baldin bada, bere datuen tratamendua legitimatzen duten ezinbesteko arrazoi legitimoak daudela ulertuko da, aplikatu beharreko araudiak hala ezartzen duelako, eta beharrezkoa izango da haren eskaera atzera botatzea.

Eskubide horiek baliatu ahal izango dituzu DBUSi eskaera idatzia bidaliz, lop@dbus.es posta elektronikoko helbidera.

Bukatzeko, adierazi behar da interesdunek Kontrol Agintaritza eskumendunari (DBUSen kasuan, Datuen Babeserako Euskal Agintaritza) erreklamazioa aurkeztu ahal izango diotela, bereziki haien eskubideak baliatzean pozik geratu ez badira. Agintaritza horrekin harremanetan jartzeko, bere web orrira jo dezakezu: www.avpd.eus.

7. Segurtasun neurriak

DBUSen BARNE INFORMAZIO SISTEMAK neurri teknikoak eta antolamendukoak ditu eragindako pertsonen eta emandako informazioan aipatzen den edozein hirugarrenen nortasuna babesteko eta datuen konfidentzialtasuna bermatzeko, bereziki informatzailearen nortasunari eragiten dionean (hura identifikatu denean).

SALAKETEN BARNE KANALAK ez du uzten metadatuak edo IP helbideak lortzen, horrela bermatuko baita informatzaileak komunikazio anonimoa aukeratu badu ezin izango dela identifikatu nor den.